

Herri Aldizkaria Otamotz

□ Aipamen berezia merezi du Santa Anastasia jaiak prestatzen eta girotzen lan handia egin duen **EUSKAL JAIA TALDEAK**. Taldea iaz sortu zen, euskal ohitura eta kulturaren alde lan egiteko asmoz, eta aurtien jaien antolaketa lanetan laguntzeaz gain, Santa Anastasia jaien nortasuna herritarrei ezagutarazteko, euskal jaiei inguruko ziklo arrakastatsua antolatu dute. Herritar asko hurbidu zen joan zen astean Euskal Jaieren historia azaldu zuten diapositiba eta bideo emanaldietara eta urte desberdinetako partaidez osatutako mahaingurua asko eztabaidatu zen.



□ Zumarragako Bisasti AEK euskaltegiak, **HEMEN BAT** euskararen erabilpenaren aldeko kanpaina jarri du martxan. Ikasleek euskaltegitik kanpo, euskaraz hitz egiteko duten arazari irtenbidea emateko asmoz sortutako kanpaina da. Kanpainarekin bi helburu lortu nahi dira, ikasleek kalean euskaraz hitz egiteko aukera izatea bate-tik, eta gure herrietan euskaraz hitz egitea lortzea beste-tik. Horretarako euskaraz egiteko konprometua hartu duten herritar eta euskaraz ikasleei, **HEMEN BAT** logotipodun txapla banatu zaie eta aurrerantz ean ere banatuko zaie. Txapak, **HEMEN BAT EUSKARAZ EGITEN DUENA** esan nahi du eta ikurtxoak darma-tenen arteko harremana euskaraz egingo dela adierazten du.



□ Urtero bezala, **ANTIGUAKO MUSIKALDIAK** doinu atseginetaz bete du Antiguako Baselizako herriko zaleen gozamen-rako. Irailako musikaldi honek, aurtien bere XII. edizioa bete duenak, 5 larunbatetan era errazean gerturatu gaitu musikara. Aurtien gregorianoa, perkusioa eta metal eta kordazko instrumentuak izan dira protagonista. Aukera zabala beraz marko zoragarria den Antzinako Baselizan. Publikoaren harrera ezin hobea izan zen eta musikarien maila altua ere aipatu behar da.

□ Zumarragako Musika Bandako zuzendari ohia zen **JESUS GONZALEZ BASTIDA**. Tarragonan hil zen 80 urte zituela. Irailaren 11n izan zen hileta elizkizuna eta bertara Zumarragako herria eta Zumarragako musika banda ere gerturatu zen bere zuzendari izandakoari azken agurra ematera. Gonzalez Bastidaren lana esku soinuaren arloa ere zabaltzen zen, irakasle izan baitzen. Sormenari dagokionez, **Zumarragako Martxa** berari zor zaitza.

ARGIKI
ARGIGINTZA
PARRA anaiak C.B.
S. Enaola 6, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA
☎ 72 41 64

UDAL
EUSKALTEGIAK
MATRIKULAZIOA ZABALIK!!
MAILAK GUZTIAK, BEKA SISTEMA
☎ 72 33 10
Labegua 42, URRETxu 20700

Valentina. JATETXEA
Urola, 6 ☎ 72 50 41
20700 - ZUMARRAGA

1995-09-29

Otamotz 8. alea


Herri Aldizkaria Otamotz




SANTA ANASTASIAK ARGAZKITAN



1999ko iraila 50. alea





MERKA-UROLA

ALTZARIAK

**LOGELA ETA
EGONGELA AUKERA
ZABALA**



Mugitegi, 17

**Tel. / faxa: 943 725828
URRETXU**



1963. urtean Euskal Jaiaren egunean karrozen desfile-aren ondoren Beti Jai koadrilakoei ateratako argazkia. "Gernikako Arbola" izeneko karroza egin eta epaimahaikoen aipamen berezia jaso zuten.

Goian, ezkerretik eskubira: Gurutz Jauregi, Jose Antonio Murua, Ramón Lasa, Anizeto Mujika, Elias Zabalo eta José Sudupe.

Behean: Kandido Izagirre, Migel Mari Mujika, Jesus Mari Kerejeta eta Luis Mari Lasa.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldia. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO SALTOKIA



DOSS

Orain Secundino
Esnaola kalean!



HARGOR

Ileapaindegi mistoa
Nekolalde 3, URRETXU
☎ 943 72 44 42

HARGOR

Artisautza Nekolalde, 5
Arropak Urretxu
Opariak ☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

SANTA ANASTASIA JAIK 99

IRAILAK 17, OSTIRALA

18:30: Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik Urretxuko erraldoi eta buruhandiak aterako dira. Auzo bakoitzean txokolatada bat egingo da eta ondoren hasiera emango zaio ibilaldiari trikitilari eta dultzaineroen laguntzaz, Iparragirre plazan amaitzeko.

19:00: Udal Musika Tailerraren eta Txistulari Elkartearen kalejira.

20:30: Alkatearen pregoia eta kanoiaren danbada.

23:00: Abesbatz txikien jaialdia Iparragirre plazan. (Eguraldi txarra izanez gero, Aldiri kiroldegian).

0:30: Gernikako Arbola plazan Alaitz eta Maiderren eskutik musika saioa. (Eguraldi txarra egiten badu, Ederrena pilotalekuan izango da).

Ordu berean, txoznetan rock kontzertua.

IRAILAK 18, LARUNBATA

Egun osoan zehar, herriarteko "24 orduko irratsaioa" Santa Barbaran, "LUZ" irrati-zale taldeak antolatuta.

9:00: Avenida berrian, Abelgorrien lehiaketari hasiera emango zaio.

10:30: Haurrentzako eskalada Gernikako Arbola enparantzan.

11:00: Urretxuko erraldoi eta buruhandiak ("Aldiri Kultur Elkartea konpartsa") Pagoetatik irtengo dira Iparragirre plaza-raino etortzeko.

12:30: Ganadu lehiaketaren sari banaketa. Jarraian, Agirre eta Mañukorta bertsolarien saioa.

13:30: Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duten taldeei ongietorria udaletxean. Haurrentzako bazkarian parte hartuko duten haurren elkartzea Iparragirre plazan eta trikitilari eta erraldoi eta buruhandiek kalejira lizeoko plazaraino.

14:00: Haurrentzako bazkaria musika ikas-
tetxeko trikitilariak girotuta.

15:30: Santa Barbarako bidean, Odriozolaren plazatxoan, plater tiraldia arratsaldeko 8ak bitartean. Izen-ematea, arratsaldeko 7ak arte. Entrenamenduak, goizeko 10etatik 1ak arte.

15:30: Haurrentzako dantzaldia Goloka taldearekin Lizeoko plazan.

18:00: Kaleetan zehar Herriarteko XII. Folklore Jaialdian parte hartuko duten taldeen desfilea.

18:00: Ederrena pilotalekuan, Gastronomi lehiaketa. Jangaia: txahal masaila.

19:00: Herriarteko XII. Folklore Jaialdia Gernikako Arbola plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian.

21:00: Gastronomi lehiaketako irabazleak ezagutuko dira eta ondoren prestatutakoa afalduko dute. Afalondoa Aldapa txaranga girotuko du.

23:00: Iparragirre plazan, txistulariek antolatutako Txistularien Kontzertu Nagusia. (Eguraldi txarra eginez gero Aldiri kiroldegian).

Goizeko 3ak eta erdi arte Aldapa txaranga herriko kaleak girotuko ditu.

0:30: Gernikako Arbola plazan Almen taldearen saioa.

5:00: Txokolatada txoznetan.

7:10: Zezenak, Urola geltoki zaharren plazatxoan.

IRAILAK 19, IGANDEA

10:00: Txistulari, trikitilari eta dultzainero taldearen kalejira.

11:30: "Argazki konzentrazioa". Izen-ematea eta informazioa, Urretxuko Kultur Etxean irailaren 15a baino lehen.

11:00: Lizeoko enparantzan herri ezberdinetako erraldoiak bilduko dira eta pasakai-

lean Iparragirre plazaraino joango dira.

11:30etatik aurrera Iparragirre plazan: sagardo eta txistor dastaketa, musikariak giroa alaituta. Gainera, Irungo Kemen taldeak "Zuberoako Maskarada" antzeztuko du.

12:00: Meza nagusia Martin Deunaren Eliza Nagusian.

17:30: Karrozen ibilaldiaren irteera. Aurten 9 koadrila arituko dira lanean.

18:30: Gernikako Arbola Plazan, Urretxuko txalapartarien eta Zuhaitzaren Soina elkartearen saioa.

19:15: Ibilaldiko karrozak Gernikako Arbola Plazan sartzen hasiko dira.

23:00: Gernikako Arbola Plazan, dantzaldia Imuntzo eta Belokiren eskutik.

23:30: Euskararen aldeko kandela piztea Gernikako Arbola Plazan. Anima zaitez eta eramanez zure kandelatxoa.

0:00: "Bedaioiko ingurutxo" dantza herri-koia Iparragirre plazan.

IRAILAK 20, ASTELEHENA

10:00: Avenidan, herri bazkarirako mahai eta aulkien montaketa.

12:00: Koadrilentzako zezenak Urolako zezen-plazatxoan.

12:00: Haurrentzako jolasak Iparragirre plazan.

14:30: Herri bazkaria Avenidan.

16:00: Haurrentzako jolasak Iparragirre plazan.

18:00: Gernikako Arbola plazan herri kirol jaialdia.

18:30: Haurrentzako jaialdia "Hankagorri" taldearen eskutik.

21:00: Kantu-afaria Avenidan.

23:00: Gernikako Arbola Plazan, dantzaldia Gaubela taldearen eskutik.

Alemaniarrak Urretxun



Gustura ibili ziren alemaniarrak txapela eta guzti!

Gehientsuenok jakingo duzuen bezala, uda honetan Urretxurekin anaiturik dagoen Schwarzenbruck herriko gazte batzuk herrian izan ditugu uda honetan. Duela bi urte urretxuar gazteak izan genituen Alemanian eta aurten eurek izan dira Euskal Herrira etorri direnak. Uztailaren 29a eta abuztuaren 7a bitartean Urretxun izan ditugu eta Euskal Herriko txoko eta ohitura ezberdinak ezagutzeko aukera izan dute: Gipuzkoa eta Bizkaia kostaldean izan ziren, Azpeitiko festetan, Urretxu inguruko herrietan... Euren ohiturak ezagutzera emateko egun bat ere antolatu zuten eta euskaraz hitz gutxi batzuk ikasteko aukera ere izan zuten.

Etxera joan aurretik agur-afaria izan zuten Santa Barbaran eta bertan beraiekin hitz egiteko aukera izan genuen. Euren esanetan bertara heldu baino lehen Urretxu oso herri txikia zela uste zuten eta bertan taberna gutxiago eta giro eskasagoa izango zela uste zuten. Urretxun igaro dituzten egunetan bertako giroaz gozatzeko aukera izan dute eta beraiek ere poteoan eta gaueko parrandan gustura aritu dira. Izan ere, Euskal Herria eta Alemaniaren artean aurkitu duten alde nagusienetako bat gazteak kalera ateratzean dituzten ohiturak dira. Alemanian gazteak zinera joan eta ondoren lagunen baten etxera joan edo taberna bate-

an egoten omen dira. Euskal Herrian tabernaz taberna ibiltzeko duten ohitura eramango omen lukete Alemaniara. Baina euren herrialdearen eta gurearen artean beste ezberdintasun batzuk ere ikusi dituzte: jateko ordutegiak, arraia jateko dugun ohiturak, inprobisatzeko ahalmenak... ere euren arreta piztu du.

Bestalde, Euskal Herriaz Alemanian ezer gutxi dakitela aitortu ziguten. Herri nekazaria zela uste zuten eta bertara heldu direnean espero zutena baino industria gehiago aurkitu dute. Mendia eta itsasoa bata bestearengandik hain gertu ikusteak ere harritu egin ditu. Euskaldunok gure kultura oso sustraitua dugula ikusi dute (asko dantzatu eta abesten omen dugu) eta oso abertzaleak garela esan ziguten. Ohitura zaharrekiko eta gure kulturarekiko dugun loturak harritu egin ditu.


Euren esanetan urretxuarrek oso harrera ona egin diete eta herritarrek Euskal Herria eta bertako ohiturak erakusteko borondatea erakutsi dute. Gutxien atsegin izan dutena bidaiari luzea eta joan beharra izan da, hori dela eta, azken gauean parranda itzela egin zuten. Schwarzenbruckeko bizilagunei Urretxura hurbiltzea gomendatuko omen diete eta beraiek ere ahal dutenean berriro etortzeko asmoa dutela zioten.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15

Faxa: 943 72 52 91

S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6

☎ 72 52 22

ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Jaietan, denok kantatzera!

Seigarrenez ospatuko da Kantu Afaria aurten

Urretxuko festetako egun nagusia Euskal Jaiarena bada ere, ostiraletik astelehenera badira primeran pasatzeko makina bat ekintza gehiago. Azken urteotan zeharo sus-traitua dagoen bat Kantu Afaria da. Duela bost urte hasi zen antolatzen eta ordutik hona urtero 800 pertsona inguru biltzen da Avenida berrian elkarrekin afaldu eta euskal kantuak abesteko. Kantu afariaren ideia herriko zenbait musikaririk izan zuten eta hasieratik Zintzo-Mintzoren babes-a jaso zuten antolaketa lanak burutzeko. Joxe Mari Lasa sortzaile eta bultzatzaileetako bat izateaz gain, urtero musika jotzen aritzen da eta berak eman digu kantu afariaren berri zabalagoa.

Nolatan sortu zen Kantu Afaria?

Zerbait egin beharra zegoela ikusi genuen. Izan ere, jendeak gero eta gutxiago kantatzen du, euskal abesti asko galtzen ari dira, kanpoko musikaren inbasioa dugu... Kantuan aritzea atsegin dugun zenbait lagunek Urretxuko jaietan zerbait egin nahi genuen jendeari kantarazi asmoz eta hasieratik Zintzo-Mintzoren laguntza jaso genuen. Ez genekien zehazki zer egin: nolako afaria eskaini, edaria eskaini edo ez... Azkenean otartekoak eskaintzea erabaki genuen, musikari taldea bildu eta megafonia jarri genuen. Peña anaiak, Juanlu Aranburu, Mikel Alustiza, Xabier Barriola, Angel Mari Urrestarazu eta ni hasieratik ari gara musika jotzen, baina iaz jende gehiago ere igo zen. Bestalde, Zintzo-Mintzoko kultur taldeko neskek eta Sebasek eskeintzen diguten laguntza eskertu beharrekoa da.

“Aurtengo abesti berriak Mikel Laboa, Xabier Lete, Imanolenak... dira”

Nola aukeratzen dituzue abestiak?

Kantuak taldeko guztien artean aukeratzen ditugu. Euskal abesti herrikoiei eta ezagunak bilatzen ditugu; urtero abesti berriak sartzen saiatzen gara eta adin



Urtero 700 pertsona baino gehiago biltzen dira Avenida berrian.

guztietako jendearentzat gustukoak izan daitezkeenak. Euskal erreperitorioan abesti ugari daude eta urtero dugu berriak hautatzeko aukera. 5 urtetan 135 abesti ezberdin abestu dira. Hala ere, zenbait abesti urtetik urtera errepikatu egiten ditugu, oso zaila baita urtero hainbeste kanta ezberdin eta ezagunekin ematea.

Aurtengo kanta berriak aukeratu al dituzue?

Hauetako batzuk aukeratu ditugu, bai. Mikel Laboaren “Maite ditut maite”, Xabier Leteren “Izarren hautsa”, Imanolen “Mendian gora haritza”... kantatuko dira aurten besteak beste. Egungo trikitixa talde berrienak ere sartzen saiatzen gara, baina hauetako asko oraindik nahikoa ezagunak ez direnez, kontuz ibili beharra dago.

Kantu afariak arrakasta lortu du...

Lehen urtean ez genekien zenbait bokadilo eskatu eta ausartak izan ginen: 500 eskatu genituen. Hala ere, motz gelditu ginen eta urtetik urtera 50 bokadilo

gehiago eskatu ditugu. Iaz 700 izan ziren eta topea hor dagoela uste dugu. Eguraldiarekin zorte ona izan dugu beti eta urtero Avenidan ospatu ahal izan da kantu afaria. Bestalde, bokadiloen salmentaren bidez gastu guztiak estaltzen dira eta udalak eta Zintzo-Mintzok ez dute dirurik jarri behar izaten. Ordizian ere antzeko zerbait antolatzen hasi dira eta jada bi aldiz antolatu dute kantu afari bat sagardotegian. Debatik ere etorri ziren Urretxuko Kantu Afaria ikusi eta bertan antzeko zerbait antolatzeko asmoz.

“Egunean zehar musikariak kalera ateratzea gustatuko litzaiguke”

Kantu Afaria sortzean zenituzten asmoak bete direla esan al daiteke?

Bai, gure asmoa galtzen ari diren euskal kantak eta kantatzeko ohitura




Musikariak Andoni Salameroren laguntza izaten dute.

berreskuratzea zen eta urtero 700 pertsona inguru biltzea garrantzitsua dela uste dugu. Jendearen erantzuna oso ona izan da eta jende asko Kantu Afaria noiz iritsiko zain izaten da. Hala ere, Kantu Afaria jendeak urtean zehar ere euskal kanta abesteko helburua lortzeko bitarteko bat besterik ez da. Bestalde, koadrilen egunean bertan herrian musika jotzen dakiten lagunek goizetik euren musika-tresnak atera eta egun guztian zehar Urretxuko kaleak girotzea gustatuko litzaiguke. Aurrera atera nahi dugun beste asmo bat orain arte erabili ditugun abesti guztiekin kanta bilduma bat atera eta herriko elkarte ezberdinetan banatzea da. Honela euren bazkari, afari eta bilera ezberdinetan kantatzeko

aukera izango lukete.

Bukatzeko, urte hauetan guztietan bitxikeriaren bat gertatuko zen...

Duela bi urte Kantu Afaria amaitu eta tabernaz taberna musika jotzen eta abesten jarraitu genuen Pako Aristi gaita jotzen zela. Etxarrin bizi den Anjel Mari Urrestarazu urretxuarra ere urtero etortzen da kantu afarian parte hartzera. Bestalde, lehenago esan dudana bezala, iaz musikari gehiago igo ziren musika jotzera eta aurren ere hala izatea nahi genuke. Kantu Afarian parte hartu nahi duen edonork ateak zabalik ditu eta gurekin batera musika jotzera etortzea gustatuko litzaiguke.



Urteik urtero bokadilo eta kantari kopuruak gora egin du.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labraga 52-54 F URRETXU

☎ 725682

722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

LASKURAIN

**Emakumezko zein
gizonezkoentzat
arropa**

Iparragirre ibilbidea, 10 ☎ 943 72 11 05
Legazpi, 8 ☎ 943 72 07 57

ZUMARRAGA

nextlingo
school of English

Bertsolari Txirrita, 16 Iparragirre, 8

20017 Altza 20700 Zumarraga

Donostia Gipuzkoa

Tel./Fax: 943 39 43 77 Tel./Fax: 943 72 65 60

nextlingo@hotmail.com

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar,5 ZUMARRAGA

☎ 943 72 13 70



Haize berriak Ezkiotarra jatetxean

Zintzo-Mintzok "Jatetxeak euskalduntzeko plana" aurrera darama joan den apiriletik aurrera. Horretarako teknikari bat bi herriotako zazpi jatetxeekin batera lanean ari da beraien eginbeharretan euskararen presentzia areagotzeko.

Aurtengo apiriletik Zumarragako jatetxe ezagun honetan jende berria ari da lanean. Bertan dihardute Miren Amaia Lasherasek, Oskar Perezek, Denis Araiztegik eta Agurtzane Lasherasek.

Sukaldariak Oskar eta Denis dira. Nahiz eta gazteak izan, zazpi urte daramatzate lan honetan. Biek Oñatiko sukaldaritza eskolan elkarrekin ikasi zuten eta ondoren beste jatetxe batzuetan lan egin dute.

Zerbitzari lanetan Miren Amaia eta Agurtzane Lasheras daude. Miren Amaiak urteak daramatza lan honetan baina oraingoan beste hainbat lan ere egingen ditu, izan ere, jatetxe bat eramateko denetik piska bat egin behar da.

Denak batera gogor egin dute lan apirilaz geroztik eta udaberria eta udagaraia pasatu ondoren oso pozik daude.

"Jendea batez ere probatzera dator gurera"

Jadanik Oskar eta Denis udazkeneko karta prestatzen hasi dira. Ezkiotarrako kartan ezinbestekoak dira plater tradizionalak baina gauza berriak proposatzen dituzte sukaldariek, hori dela eta, zapore eta aurkezpen berriz beteta izango dugu karta berria. Guk eskatuta, bertatik menu bat aukeratu digute: Sarrera moduan, entsalada epela ganba eta izokin ketuzkoa; ondoren, zapoa garizainzuri eta onddo saltsarekin; gero, orein ragouta mugurdi eta sagar marmeladekin; eta postre gisa, txokolate-malkoak hur mousse eta arroz-esne kremarekin. Jaki hauei laguntzeko bi ardo aukeratu dituzte: Lehenengo bi platerentzat urteko

Hau dela eta "Jatetxeak euskalduntzeko planaren" barnean dauden jatetxeak ezagutzeko aukera izango dugu hilero Otamotzen. Oraingo honetan Ezkiotarra jatetxeko gazte euskaldunekin egon gara eta beraien lanaren eta asmoen berri eman digute.

ardo bat, Joan Raventos Chardonnouy; eta besteentzat ordo sendago bat, 1994ko Imperiala.

Etxe zahar honetako alor guztietara ekarri dituzte berrikuntzak gazte hauek. Euskarari dagokionez, Zintzo-Mintzoren Jatetxeak Euskalduntzeko Planari heldu diote eta ari dira poliki-poliki horretan ere lanean. Hurrengo urratsa karta berria euskaraz eskaintzea izango da.

Hau irakurri ondoren Ezkiotarrako kutixiak dastatu nahi izanez gero, hona hemen interesgarriak izan daitezkeen datu batzuk:

Menuaren prezioa: 1100

Atsedan egunak: Astelehen gauean janlekua eta barra itxita eta asteartean gauean janlekua soilik
Oporrak: Abuzkuko erdiko bi asteak
Telefona: 943 722964



Oskar, Amaia, Denis eta Agurtzane jatetxeko ate aurrean.



Urtero argazki bera jartzen dugula esango duzue, baina izan ere argazki hau zuen izaeraren adierazgarri ezin hobea da. Zenbat urte dira aurtzen? 3...? Lasai, izpirituz gazte ikusten zaizue oraindik eta! **Zorionak Amaia eta Lierni** eta segi orainarte bezain saltse- ra eta zirikatzaile!



Arantxa, hain- beste ume arte- an gazte man- tentzeko espe- rantzan ala? **Zorionak** eta eraman goxo- kiak ikastolako haurrei!



Asun, dirudie- nez ez duzu zure izenak dioen adina sumintzen. **Zorionak** eta ondo pasa urte- betetze eguna!



Zer, Garikoitz, Aintzanek prestatutako postrea ez zit- zaizun gustatu ala? Disimula ezazu pixka bat, motel! **Zorionak!**



Carmen, sena- rrari argazkiak ateratzen era- kutsi beharko diozu, ez dago inondik inora nor zaren jaki- terik eta! **Zorionak!**



Jesus, katekis- tak ondo por- tatzen al dira zurekin? Ez duzu ez gurutze makala! **Zorionak!**



Josu lagundu iezaiozu pixka bat zure alboan duzun izenki- deari, hainbeste emakume arte- an larri dabil eta! **Zorionak!**



Joxepa, zu bai fundamentuzko emakumea! Ezin dugu, ordea, berdina esan alboko argazkietan dituzunez. **Zorionak!**



Juan Mari, oraingoan ere neska artean... Ikusi ere nekez ikusten zaitugu motel! Ea hurrengoan lehen planoan ikusten zaitugun.!



Maidar, alboan zenuena inte- resgarria izan- go zen... kame- raz ez zinen ohartu ere egin eta! **Zorionak** eta ondo pasa.



Maite aurtzen seriago ikusten zaitugu, semea- ren ileapainde- giko faktura iritsi den seina- le! **Zorionak!**



Zorionak Mari Carmen Zumarragako katekisten izen- ean. Zure seme alproja hori gogoratu al da?



Maria Jesus gogaikarria zinen gero soi- nuaz txoritxo- en kanta jotzen zenuenean! **Zorionak** eta ondo pasa!



Migel ez duzu ez meritu makala opor- re- tatik bueltan lanean hain irrifartsu hasi bazara! **Zorionak!**



Mikel, familia- ko gazteena zaren arren, zu jarri zaitugu lehenengo. Ziur zure bi arrebak baino formalagoa zarela! **Zorionak!**



Zorionak Nerea eta kon- tuz ibili Bergarako to- stoiekin, beteka- da izateko pri- merakoak dira eta!



Mutiko bat zirudizun garai- tako argazkia eman digun arren, ez zaitetz mutilarekin haserratu! **Zorionak Olga!**



Zorionak Naiara eta eskerrikasko azken urte honetan Otamotz bana- tzen egin duzun lan fina- rengatik.



Olatz zure irri- farre maltzurra ikusita, adarrik ez jotzea eraba- ki dugu. **Zorionak** eta ez zaitetz haser- ratu!



Consuelo, aur- ten ere kontso- lamendua behar al duzu urtebe- te gehiago bete duzun egune- an? **Zorionak!**



Ana Mari, oporrak bukatu direla eta ez duzu bada "morriñarik" izango? **Zorionak** eta ospatu ezazu Ribeiroz.



Irailaren 14an hamaika urte beteko dituen **Usuerentzat**, bere amaren partez. **Zorionak!**

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Margarita Zabaletari omenaldia

Gerra ondorengo urteetan Santa Barbarako eskolan ibilitako ikasle talde batek omenaldi beroa eskaini zion bertan beraien maistra izan zen Margarita Zabaletari. Margarita Urretxuko Santiñe baserrian jaio zen 1920an eta 40 hamarkadan auzoko baserrietako haur eta gazteei eskola ematen aritu zen bizpahiru urtez. 44an, esaterako, 44 ikasleko taldea izan zuen bere gain. 1945. urtean Ermura ezkondu zen eta orduan utzi zion irakaskuntzari. Bost seme-alaba ditu eta gaur egun Eibarren bizi da bere senarrarekin. Urte dexente igaro den arren, garai hartako ikasleek ederki asko gogoratzen dute Margarita. Hori dela eta, omenaldi ederra eta opariak eskaini zizkionten gerraosteko garai gogor haietan egindako lan bikainaren eskerretan.



Margarita, esku artean lora sorta duela, bere ikasle ohiekin.



"Iparragirre" pastoralaren lehenengo antzeztuaren argazkia.

"Iparragirre" pastoralaren Urdiñarben

Iparraldeko Urdiñarbe herriak "Iparragirre" pastoralaren taula-tuko du irailaren 26an eta urriaren 2an Urdiñarben bertan. Lehen agerraldia arratsaldean egingo da 15:00etatik aurrera eta bigarrena, aldiz, iluntzeko 20:30etan hasiko da.

Pastoral hau Etxahun-Irurik idatzi zuen eta bere hiltzearen 20. urteurrena gogoratzeko asmoz, Urdiñarbeko herriak Urretxuko olerkariaren bizitzako gorabeherak aipatzen dituen obra hau berriro taula-ratzea erabaki du.

Duela 19 urte taularatu zuten lehenengoz, eta orduan bezala, aurten ere Jean Mixel Bedaxagarrak beteko du Iparragirreraren papera. Zuzendaria ere ordukoa izango da, Battitta Ürrüti hain zuzen ere.

Honako hau izango da pastoral bat lehen aldiz oihaltzerape batean antzeztuko dena. Horretarako 60 metro luzera eta 35 metro zabalera dituen aterpea prestatu dute eta barnean 2.500 lagunentzako jarleku erosoak prestatu dituzte antolatzaileek.

"Iparragirre" pastoralaren ikusteko irrikitan bazaudete irailaren 26an eta urriaren 2an duzue aukera Urdiñarben.

Antiguako XVI. Musikaldia

Aurten ere, irailaren haserarekin batera, Antiguako Musikaldia heldu zaigu. Euskal Herriko musikaldi ezberdinen artean garrantzitsuenetakoa den honen 16. edizioa da aurtengoa eta urria heldu bitarteko larunbateetan musikaz gozatzeko aukera bikaina eskainiko digu Antiguako baselizan. Urtero bezala, antolatzaileek egitarau bikaina antolatu dute eta azken larunbateetan Antiguara hurbildu den jendetza oso gustura atera da.

Irailaren 18an Cap-pela taldeko abeslari baleardarrak izango ditugu Antiguan. Talde hau 1994 urte hasieran sortu zen, musika koralaren eremuan ordura arte egin eta entzun ez zena egiteko asmoz. Hau dela eta, euren erreperorioan inolako mugarik ez ezartzea erabaki zuten. Honela, denetarik jorratzen dute: musika beltz izpirituala, reggae, rap, blues, gospel eta abar.

Irailaren 25an, berriz, 1982an sortutako Mijan Sax Quartet taldeak eskeinitako kontzertua Antiguan. Taldekideak hasieratik musikagileekin hartu-eman estua izan dute, halako tresnentzako musika lanak sustatzeko. Lankidetzaren ondorioz, egile ezberdinen lanak estreinatu dituzte. Talde honek eman-gio amaiera arrakastaz hasi den Musikaldiari. Gogoratu orain-



Aurten ere jende ugari hurbiltzen ari da Antiguako baselizara.

dik ere hurrengo larunbateetan Antiguara musika entzuterako hurbiltzeko aukera duzuela eta emanaldiak arratsaldeko 7:30etan hasten direla.

50 ale... eta aurrera!

Badira 6 urte Zintzo-Mintzo euskaltzale taldearen sorrerarekin batera eta honen ekimenez Otamotz aldizkaria sortu zela. Helburua gure bi herriotan euskararen normalizaziorako beste aurrerapausu txiki bat izango zen euskal prentsa kaleratzea zen. Ordurako Euskal Herriko herri askok eta askok euren herri aldizkaria kalean zuten eta Urretxuk eta Zumarragak ezin zuten gutxiago izan. Prestaketa lan gogorraren ondoren, 1995. urtean hasi ginen Otamotz aldizkaria egun ezagutzen dugun aldikotasunez

kaleratzen. Ordutik hona hilabetero gero eta herritar gehiagoren etxeetara heldu da. Bost urte igaro ondoren 50. alea kaleratzea lortu dugu eta poliki-poliki bada ere, aldizkariak gero eta orrialde kopuru gehiago eta kalitate hobea lortu du.

Urte hauetan guztietan aldizkarian lanean jende ugari aritu den arren, koordinatzaileak hiru izan dira: Amaia Pildain, Jon Balenziaga eta Asier Zaldua. Bakoitzak aldizkariaren aro ezberdinak bizi izan ditu eta bere esperimentziaren berri eman digute.

Zintzo Mintzoren helburua euskarara hutsean idatzitako herri aldizkari informatiboa kaleratzea zen. Herriko bertako albisteak, beste inon azaltzen ez zirenak, euskaraz kontatzea alegia. Hizkuntzaren normalizazioan ekarpenik egitekotan, funtsezkoa zen euskaraz idatzia izatea.

Publizitatearen bitartez jasotako diruari esker eta udalen dirulaguntzei esker argitaratuko zen. Hutsetik hasi behar zen, dena egiteko zegoen eta guk uste baino lan gehiago genuen. Apostu handia izan zen.

Sebas Iturriozek heldu zion erronkari 1994. urtean, berak osatu zuen lantaldea eta berak jarri gintuen kazetari lanetan. Sebas 'todoterrenoa' da eta OTAMOTZ inprentara argitaratzeko prest eraman ahal izateko maketazio ikastaro bat ere egin zuen. Oraindik gogoan izango ditu gaueko ordu txikitik OTAMOTZeko lokalean ordenagailuaren aurrean berak bakarrik egindako orduak, Oñatiko inprimategirako joan etorriak, publizitate bila aritu zeneko garaia...

1995eko urtarrilean argitaratu genuen lehenengo alea, lau orritakoa, txuri beltzean eta portadarik ez zuena. Lau orriko hilabetekari hark lan handia eman zigun lantaldeari, oso egun intentsuak izan ziren haiek, baina aldi berean aurrera egiteko ilusioa eta poza ere eman zigun. Lapurreta izan aurretik genuen ordenagailu kaxkarrak ere buruhauste ugari ematen zizkigun, (niri behintzat asko). Eskerrak Jonmikel Insausti, oraindik ere OTAMOTZeko informatikaria dena, egunero eta uneoro telefonoz bestalde laguntzeko prest izaten genuen. Garai hartan Donostian lan egin eta bertan bizi zen baina aste barruan ere, hamai-ka bidai egin zituen RENFEko trenetan gora eta behera gure arazoak konpondu ahal izateko.

1996an hasi nintzen kontratuarekin lanean. Beldurra izan nuen hasieran,

norberaren burua lan horretarako gai ikustea zen gogorrena. Baina OTAMOTZek beti izan du lantalde jatorria. Kolaboratzaile ugari izan ditugu eta gure artean oso ondo konpondu izan gara beti. Lankide soilak baino lagunak izan gara. Taldeko lan hori eta giro hori, nire ustez, funtsezkoak izan dira aldizkariarekin jarraitzeko.

Hasieran gure ardurarik nagusiena hilabete bukaerarako alea bukatu eta harpidedunei banatzea zen, baina denborekin itxura, diseinua, edukiaren kalitatea lantzen hasi ginen. Honela, 1996ko maiatzean 16 orrialdeko alea kaleratu genuen, koloretako portada eta guzti. Beranduago, 1997an, eskola kirolean parte hartzen zuten gaztetxoenei zuzendutako TXIKIMOTZ gehigarriaren arduratu hartu zuen Unai Alzelaik. Aldizkaria 20 orri izatera pasatu zen.

Niri dagokidanez, OTAMOTZen aritzea oso aberasgarria izan zait profesionalki eta batez ere pertsonalki. Adin eta alor guztietako herritarrek ezagutzeko aukera paregabea eskaini zidan lan honek. Benetan jende atsegina eta interesgarria ezagutzeko parada izan nuen. Honetaz gain gure herriak hobeto ezagutzeko ere baliagarria izan zitzaidan OTAMOTZ.

Hankasartzeak ere ugariak izan ziren nire garaian, zenbaitetan artikulua garaiak kanpo argitaratu nituen, hainbat artikulua ez nituen behar bezala jorratu,




Marian, Amaia, Jon, Sebas, Idoia eta Jonmikel erredakzioan lanean.

artikuluren batek arazoak ekarri zitzaizkidan...

Errepasotxo honetan ez nuke Marian Toledo, OTAMOTZeko hizkuntz zuzentzailea, ahaztu nahi. Bera arduratzen da aldizkariaren sorreratik, artikulua ortografikoki eta gramatikalki zuzentzeaz. Marianek gu, kazetarion erruz, erlojuak kontra egin behar izaten ditu zuzenketa lanak. Neronek azken orduan pasatzen nizkion artikulorik luzeenak, alea inprentara eramateko bezperan. Jakin badakit nire ondoren Jon Balenziagak, eta egun, Asier Zalduak berandu ibiltzearen ohitura horri eutsi diotela. (*Otamotzkideon* nortasun ikurra izango da). Testu hau ere halaxe dago idatzia, azkeneko momentuan, Asier dagoeneko garaiz entregatuko ez ote dudan beldurrez dago, telefonoz ere dei egin dit goizean, eta nik badakit Jon Balenziagak ere oraindik ez duela agindutako artikulua idatzi. Horrelakoa da OTAMOTZeko iharduna, beti azken orduan baina beti garaiz.

Amaia Pildain
Otamotz aldizkari
lehen koordinatzailea



A m a i a
Pildainek hasi-
tako bidea
jarraitzea ego-
kitu zitzaidan
niri. Iazko urta-
rrila eta uztaila
bitartean aritu
nintzen aldiz-

kariko koordinatzaile lanetan eta ordura-
ko OTAMOTZ finkatua zegoen Urretxu
eta Zumarragan.

Amaiak egindako lan neketsu
eta akaso eskergabekoaren ondoren, ez
dut esango niri tokatu zitzaidanik lan
horren fruitua jasotzea, baina garbi utzi
nahi dut Amaiak nik baino lan zailagoa


egin zuela. Otamotz jaioberria berak arta-
tu zuen eta niregana iristerako haurra
zena gazte bihurtu zen.

Egia da, bai, bere inguruan
laguntzeko prest jende dexente izan zuela,
baina horien berri Amaiak eman du bere
gutunean. Baina eskertzen hasita, ondo-
rengo guztiei ere eskerrak eman nahi niz-
kieke: Irakurleei (zuen interesik gabe
alferrik ari gara), Otamotzeko erredakzio
kontseiluari (zuen bai dela lan egitea),
Zintzo-Mintzoko bazkideei (orohar elkar-
tean eta bereziki aldizkarian jartzen
duzuen arretagatik), Zintzo-Mintzoko
zuzendaritza taldeari (bere egunean egin-
dako erronkari eusteagatik), publikizitate
bidez proiektu honengan sinesten duzen

guztiei eta zuzenki edo ez diruz laguntzen
diguzuen instituzioei.

Guztion artean 50 egin ditugu.
Aztoratu gabe, egonkortasuna ezaugarri
nabaritzat hartuta aurrera goaz. Irakurleak
gehiago nahi du, eta Otamotzek ere bai.
Horregatik, atzera begiratu eta lan esker-
ga eginda dagoela konturatzen gara, baina
aurrera begiratzat lan asko dagoela egite-
ko ere badakigu. Erronka hor dago, eta
erronka horretan parte hartu nahi duen
orok zabalik ditu Otamotzeko atea.
Etorri lasai.

Jon Balenziaga
Aldizkariko koordinatzaile ohia



Ez zuten lan makala hartu banatzaileek!



Jon "Balentxi"k
esan duen moduan,
Amaia aldizkari jaio
berria hezitzeaz
arduratu zen eta
berak aldizkariaren
gaztaroa bizi izan
zuen. Jonek aldizka-
ria bere gaztaroan

utzi zuen eta aldizkariak oraindik ere bere gaz-
taroa bizi duela esan daiteke, nahiz eta pixka-
naka heldutasunera iritsi dadin lanean ari
garen.


Nik ere beraiek aipatu dituzten guz-
tiei eskerrak eman behar diet (ezin berriro
denak aipatu, gehiegi luzatuko nintzateke eta),
baina bereziki eurei biei eta hasieratik
Otamotz aurrera ateratzeko lan egin zutenei.
Beraiei esker Urretxuar eta Zumarragar askok
herriko informazioa etxean euskaraz eta doan
jasotzeko aukera baituzue.

Horretaz gain, Otamotz aldizkariak
kazetaritza ikasketak burutu genituen zenbait
gazteri kazetaritza munduan lehen pausuak
emateko aukera ere eskeini digu. Kaleko lane-
an eta ordenagailu honen aurrean biziko geni-
tuenen berri ez ziguten ez Leioako unibertsita-
tean eman! Goi-Design inprentan ordenagai-
luaren aurrean lanean aritzen den Pedrok eder-
ki asko daki hau. Zenbatetan ibili behar izan
ote da nola hala eramandako aldizkaria txu-
kuntzen! (Eskerrak pixkanaka ikasi dugun...).

Etorkizunean ere Otamotz kazetari
gazte askoren eskola izatea espero dut, baina
batez ere, orainarte bezala, pixkanaka hobe-
tzen joatea. Horretarako zuen, irakurleen, par-
taidetza ezinbestekoa dugu; azken finean
zuentzat eta zuena baita Otamotz.

Asier Zaldúa
Otamotz aldizkariko koordinatzailea

50. alea behin bakarrik iritsiko dela eta, Zumarraga eta Urretxuko lagun batzuei aldizkariak duten iritziaz galdegin diegu. Bakoitzak bere ikuspuntutik aldizkaria nola ikusten duen eta nolakoa izatea gustatuko litzaiokeen azaldu digu. Zuk ere zure iritzia agertarazi nahi badiguzu, Labeaga 12an (Goierri elkartearen ondoan) aurkituko gaituzu zure laguntzaren zain.



GOTZON ARANBURU GARako kazetaria

Bi hitzekin definituko nuke Otamotz: beharrezkoa eta hobetu beharrezkoa. Beharrezkoa zergatik den ez dago esan beharrik gure bi herriotan, denok ezagutzen dugu eta euskarak hemen jasaten duen egoera, egoera larria. Estatistiken arabera euskaldunak gero eta gehiago garen arren, zenbait arlotan hizkuntzaren presentzia oso txikia da: komunikabideña da horietako bat. Errua euskaldunona da, ez beste inorena, eta pozgarria da gure artean Otamotz bezalako produktuak argitaratzeko gaitasuna duen jendea egotea. Erdararen itsasoan euskarazko tanta da, baina lehen hori ere ez geneukan. Poliki-poliki zabaltzen joan da eta gaur egun euskaldun gutxi izango dira etxean aldizkaria jasotzen ez duenik. Pentsatu etxe askotan euskaraz idatzita sartzen den prentsa bakarra izango dela.

Era berean, hobetu beharra ikusten diot. Ez dut esan nahi orain egiten dena ona ez denik, baizik eta beti kalitate gehiago lortzera jo behar dela. Horretarako, jakina, bitarteko gehiago beharko dira, baina ziur nago lortuko dela. Animo, beraz.



JABI OTERMIN GU SPORT aldizkariako kazetaria

Otamotzen sorrera sekulako erronka izan zen euskaltzaleentzat. Ume baten antzera pixkanaka pixkanaka hasi zen lehenengo hitzak esaten, poliki poliki bakarrik ibiltzen, gauzak aguro ikasten, alez ale gorpuzten eta kolorea hartzen. Zintzo-Mintzoren umerik politena da, nire ustez, Otamotz.

Gaur egun, gaztea bada ere, geroz eta helduago ikusten dut aldizkaria. 50 ale kaleratzeko makina bat ordu sartu behar dira eta bakardadean buruhauste ugari jasan. Otamotz esku artean izanda, elkarrizketa, erreportaia, boteprontoan... irakurtzen ditugula, ez gara jabetzen atzean lan nekeza dagoenik. Horregatik, eskerrik asko hilabetero euskarazko aldizkaria egiten duzuenoi!

Pasa diren bost urte hauetan aldaketa ugari eman dira herri informazioan. Lauzpabost berriemaile ginen Urretxu nahiz Zumarragako albisteak jorratzen. Orain, berriz, egunkari batekin eta telebista lokal batekin konformatu behar! Otamotzeko lagunei udal informazioari tarte egin diezaioten eskatu nahi nieke, horrelako albisteak euskaraz ere jaso ditza-gun, hori bai, orain arte jarraitu duten bideari muzin egin barik. Zorionak... eta ekin gogor lanari, 51. alea prestatu behar duzue eta!



LOURDES ETXANIZ eta IZASKUN LARRAÑAGA Zumarragako Udaleko kultura teknikariak

Otamotz euskara hutsean kaleratzen denez, euskara erabiltzeko tresna egokia dela uste dugu. Horregatik euskara bul-tzatzen lan bikaina egiten ari zaretelakoan gaude.

Edukiari dagokionez, oso egokia iruditzen zaigu herriko gaiak landu eta bertako jendea azaltzen duelako. Gure kasuan, gainera, antolatzen ditugun ekintzak jendeari ezagutarazteko medio egokia gertatzen zaigu.

Atal guztiak atseginak gertatzen zaizkigu, baina bat aukeratzekotan, "Argazki Zaharrarena" aukeraturiko genuke. Hori ikusten baitugu atalik grazioso edo bitxiena bezala, aukera ematen baitugu urteetan zehar jendea nola aldatu den ikusteko. Gutxien atsegin duguna, berriz, kiroleko emaitzena da, gaia ez baitzaigu gehiegi interesatzen.

Aurrera begira ez genuke ezer aldatuko, dagoen moduan jarraituko genuke lanean eta 50. alera iritsi den moduan aldizkaria urte askotan eskuarteaz izatea nahiko genuke.

Azkenik, gure zorionak adierazi nahi genizueke 50 ale hauek kaleratzeko egin duzuen lan bikainagatik eta besterik gabe, lan horretan jarraitzea animatzen zaituztegu.



MIREN CASTILLO Urretxuko Udaleko kultura teknikaria

Urretxu eta Zumarragan izan dugun euskarazko lehen herri aldizkaria dugu Otamotz, hilabetero bi herriotako etxeetara iristen dena. Garrantzi handikoa iruditzen zait horrelako informazio tresna baten presentzia gure herriotan, izan ere, herria baita protagonista nagusia: herriko informazioa herriko jendearen eskutik. Gainera, hilerokoa izateak ez dio inolaz ere gaurkotasunik kentzen, eta aldi berean, gaiak sakontzeko aukera ematen dio aldizkariari.

Denboran atzera jotzen badugu, argi eta garbi ikus dezakegu Otamotzen eboluzioa; orrialde gehiago, koloreak, maketazio hobea... azken batean, kalitatezko produktua eta euskaraz. Horixe da, hain zuzen ere, bere arrakastaren ezaugarria; herritarrek begirune osoa diote aldizkariari.

Jakin badakit zernolako ahalegina eskatzen duen horrelako aldizkari batek, baina, azken batean merezi du aurrera egitea ahalegin horretan. Zorionak eta jarraitu horrelaxe!

Euskara ikasteko aukera bikoitza

Oporrak amaitu dira eta beste ikasturte bat hasiko da ikasleentzat. Koaderno, boligrafo eta liburu berriak erosi ondoren; ekainean azkeneko ikusitako lagun askorekin egoteko aukera izango dute. D.B.Hn, batxilergoan, unibertsitatean... ikasturte berriko irakasgaiei aurre egin beharko diote. Beste batzuek, ordea, irakasgai bakarria izango dute: aurtengo, edo aurtengo lehenengoz, euskara ikasteari ekingo diotenek. Askok guztiz arrotza zaien hizkuntza baten ikasketan murgil-

duko dira gure hizkuntzaren biziraupenaren garrantziaz jabeturik, euskal kulturaz gozatu ahal izateko, lan aukera handiagoak izateko...

Urretxu eta Zumarragan euskaraz ikasteko bi eskaintza daude: Udal Euskaltegiarena eta iraila honetan berriro martxan hasi den Bisasti AEK euskaltegiarena. Zu ere euskaraz ikasi edo zure euskara maila hobetzeko asmoz bazabiltza, aurrera!

Udal Euskaltegia 1981ean sortu zen eta Euskal Herriko lehenengoetarikoa izan zen, Arrasate eta Ermuakoarekin batera. Urretxuko nazionalistako eskola zaharrean hasi baziren ere, bertara geroz eta jende gehiago hurbiltzean, Madaya parera igaro ziren. Udal Euskaltegia Urretxu eta Zumarragako udalen menpe dago eta bi urtetik bi urtera udal baten menpe egotetik bestearen menpe egotera pasatzen da. Bi udalen dirulaguntza du eta irakasleen soldataren gehiengoa, berriz, HABEren eskutik dator. Egun sei irakasle finko daude eta behar izanez gero epe baterako berriak hartzen dituzte.

Azken urte hauetan 200 ikasle inguru igaro dira urtero Udal Euskaltegitik irailean hasi eta ekainean amaitu ohi diren ikastaro ezberdinak hartzera. 80 hamarkada hasierako urte haietan eta egun jendeak duen motibazioa oso ezberdina da Udal Euskaltegiako arduraduna den Maite Zalduaren esanetan. Orduan euskararekiko sentimendu baikorra oso sustraitua zegoen eta jende asko lanetik atera eta euskaltegiara joaten omen zen. Egun, ordea, langileak gutxiago dira eta gehienak seme-alabekin euskaraz hitz egin nahi duten gurasoak, EGA titulua atera nahi duen jendea, administrazioako azterketak gainditzeko doazena... dira.

Atzeritik etorritako jende asko dabil Udal Euskaltegian

Udal Euskaltegian helburu eta maila ezberdinak dituztenentzako ikastaro eta talde ezberdinak daude, beraz. Hauen artean bi talde oso bereziak dira: haurrak klasean dituzten bitartean euskaltegiara hurbiltzen diren gurasoenak eta atzeritik



Euskaltegian euskaraz ikasteaz gain beste ekintza asko ere antolatzen dira.

Euskal Herrira etorri direnenak. Gurasoen helburua haurrekin euskaraz hitz egin ahal izateko euskaraz ikastea da eta hauetako askok euskaltegiara heltzean euskaraz ez omen dakite tutik ere. Hau dela eta, euskaltegian haurrek eskolan egiten duten berbera egiten dute gero etxean umeekin eskolan egin dutenaz euskaraz hitz egin ahal izateko. Ikastaro hau hiru urteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua dago eta astean hiru egunetan, arratsaldean, haurrak eskolan dauden bitartean, biltzen dira gurasoak euskaltegian.

Bestalde, azken ikasturtean atzeriko herrietatik etorritako lagunek osatutako lehenengo urratseko ikasgela izan omen dute. Frantzia, Mexiko, Irlanda, Kuba eta beste herri batzuetatik etorritako hainbat lagun hemen bizitze hasi eta denbora gutxira jada euskaltegian hasi dira. Kanpotar hauek motibazio oso handia dute eta harritu egiten dira bizitza guztian bi herriotan

bizi izan den jende askok euskaraz ez dakiela ikustean. Euskal Herrira etorri eta bertako hizkuntza ikasteari garrantzi handia ematen diote.

Euskaltegiaren esanetan hauen guztien borondatea txalotzekoa da eta jendea euskaraz ikastera animatu nahi dute. Diruari dagokionez, ezin esan daiteke euskara ikastea garestia denik: urte guztiko matrikula 40.000 pezetakoa da lanean daudenentzat eta %40 gutxiago langabetuenentzat. Matrikula hiru epetan ordaindu daiteke. Ikasturtean zehar klasera maiztasunez joan eta azterketa egin dutenei (gainditu ez arren), ordaindu duten %25 itzultzen zaie. Argi dago euskara ikastea ez dela lan erraza, baina klasera maiztasunez joanez gero eta ikasturte bakoitzean bi maila gaindituz gero, sei urtetan lortu daitekeena omen da. Bestalde, euskaltegiarekin ez da nahikoa eta bertatik kanpo euskarazko harremanak mantendu behar dituzte ingurukoekin.



Bisastikoak garai batetako giro ona berreskuratzeko irrikitan daude.

Bisasti AEK Euskaltegia 1974 urte inguruan jada euskara irakasten ari zen gure bi herriotan. Azken ikasturte honetan bere atea itxita izan dituen arren, Ainhoa Osinaldek eta Leire Kristobalek euskaltegia aurrera ateratzeko ardura bere gain hartu dute. AEK-k pozik jaso zuen berria eta hasieratik euren laguntza eskeini diete atak berriro zabaltzeko. Ordutik hona Leirek eta Ainhoak ikastetxeetako arduradunekin, udal teknikariekin eta herriko talde ezberdinekin harremanetan jarri dira eta denek euren babesa eta laguntza eskaintzeko prest agertu dira. Euskaltegiaren eskaintza gizarte guztira zabaltzeaz arduratu dira azken hilabete hauetan eta bereziki guraso, tabernari eta gazteengana jo dute euren asmoen berri emanaz. Buzoneoaren, kartelen eta ikasle

ohiei bidalitako gutunen bidez ere zuzendu dira eta Matrikulazio Kanpainaren Eguna egitea ere pentsatua dute ahalik eta herritar gehien euskaraz ikastera animatzeko. Maiatzean lanean gogor hasi ziren eta matrikulazio epea irailaren 30a bitartean zabalik dago.

Leire eta Ainhoa izango dira klaseak emateaz arduratuko direnak, baina eskariaren arabera irakasle gehiago beharko balira oso gustura agertuko lirateke. Euren esanetan euskararen egoera bi herriotan ez da behar bezain ona eta guztion lana beharko da gure bi herriak euskalduntzea lortzeko. Ikasleekin kalean ekintza ugari burutzeko asmoa dute, baina horretarako euskaraz dakigunok Urretxu eta Zumarragan giro euskalduna zabaltzea beharrezkoa izango da.



Korrikaren antolaketa Urretxu eta Zumarragan Bisastikoen esku egoten da.

CHIARA

**Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

Madaia plazoletan
20700 URRETXU

Z
A
P
A
T
A
K



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39

ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780

URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

**GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU**



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306
ZUMARRAGA

Goierriko Itzulia, indarberritua

Zumarragan eta Santa Barbaran bi etapa amaitu dira

Afizionatu mailako txirrindularientzako Goierriko Itzulia urtero Urretxuko jaien aurrekari bikaina izaten da eta aurten ere jaien aurreko asteburuan izan da, irailaren 10ean, 11an eta 12an alegia. 1960tik 62ra hiru urtetan jarraian antolatu ondoren, 84. urterarte antolatzeari utzi zitzaion. Urte horretatik gaurdaino, ordea, urtero izan da. Urte hauetan guztietan sona handiko irabazleak ezagutu ditu eta hauetako asko profesional mailan ari dira egun: Jon Odriozola, Félix García Casas,

Manuel Fernández Ginés eta Alberto Martínez esaterako. Azken urteotan, Goierriko txirrindulari itzuliko irabazle gehienak profesional mailara igaro dira. Aurten Goierriko itzuliak berrikuntza ugari ezagutu ditu: antolatzaile talde berriak hartu du itzuliaren ardura eta etapa bat Zumarragan eta beste bat Santa Barbaran amaitu dira. Itzuliaren eta antolatzaile talde berriaren lanaren berri Javier García de Andoin, Goierri elkarteak presidentea, eman digu.

Zer dela eta antolatzaile taldearen aldaketa?

Orainarte Goierriko itzuliaren antolaketa pertsona bakar baten esku egon da eta arazoak izan dira. Ordainketak urte batetik bestera egiten ziren eta talde eta aterpe batzuei dirua zor zitzaion. Txirrindularitza taldeei dopingaren aurkako kontrol guztiek negatibo eman dutela ikusi ondoren, abendurako, ordaindu behar zaie eta ez da hala egin. Hau dela eta, zenbait taldek ez zuten jada Urretxura etortzeko gogo handirik eta antolatzaile talde berriko partaideok hau guztia aldatu nahi dugu.

Zeintzuk osatzen duzue antolatzaile talde berria eta zer aldaketa dakarzue?

Goierri K.E.ko zazpi lagunek osatzen dugu eta ideia berriak aurrera ateratzeko gogo handiarekin gatoz. Horretarako Urretxuko udalaren, Gipuzkoako txirrindularitza federazioaren eta patrozinatzaileen laguntza handia izan dugu. Gure asmoa aurten go abendurako orainarte pilatu den zorra eta aurtengo gastuak ordainduak izatea da. Bestalde, laguntza eskeini behar diguten merkatal etxe guztiei eta udalari diru gastu eta sarrera guztien berri zehatza emateko asmoa dugu. Baina kontuak garbi eramateaz gain, itzuliari merezi duen irudia ere eskaini nahi diogu. Hau dela eta, muntaia profesional mailako lasterketek duten an-



Alberto Leanizbarrutiak Tarteko Helmugen saria irabazi zuen 1984.

tzekoa izan da: Gernikako Arbola enparantzan sinadura kontrola ezarri da alokaturiko kamioi berezi batean, txirrindulariak eroso egon daitezen aulkia eta estalkiak jarri ditugu, antidoping kontrola Gurutze Gorriaren kamioi batean egin da, helmugako hesiak txirrindularitza lasterketetan erabiltzen direnak izan dira, helmugako pankarta puzgarria... Txikikeriak diruditen hauek guztiek lasterketaren irudia hobetu eta seriotasuna erakusten dute.

Lasterketari dagokionez, zer aldaketa izan ditu aurreko urteekiko?

Esan bezala, antolatzaile berriak itzuliari irudi berria emateko gogoz lanean hasi gara eta lasterketak berak ere berrikuntzak izan ditu. Aurten etapa guztiak Goierri elkartearen parean, Labeaga kalean, hasi dira. Helburua itzulia antolatzen duen elkarteari bere lekua eskaintzea izan da. Bestetik, lehe-

nengo etapa estrainekoz Zumarragan amaitu da. Honen arrazoa oso sinplea da: Goierri elkarteak dituen sekzio ezberdinetan Urola Garaiko gazte ezberdinek parte hartzen dute eta elkarteak hazten joan den heinean eskualde mailako bihurtu da.

“Jubenil mailako taldea atera nahi genuke”

Itzulia bera ere eskualde mailako bihurtu nahi dugu eta beste urte batean Legazpi edo Ezkio-Itsasoko udalek etapa bat bertan amaitzea eskatuko baligute kontuan izango genuke. Beste aldaketa garrantzitsu bat bigarren etapen kokatu dugu: Urretxuko Aldapako tabernen ekimenez Santa Barbaran amaitu da. Oso etapa amaiera polita izan da. Bestalde, merkatal-etxeei gure esker ona erakusteko lasterketa gehiagotan pasa da Urretxutik.

Zer nolako esperientzia izan da itzulia lehenengoz antolatzea?

Oso lan gogorra izan da. Martxoan hasi ginen lanean eta azken bi hilabeteotan ia egunero bilerak izan ditugu. Lasterketaren egunetan 50-60 pertsona inguruk lagundu digute hesiak prestatzen, helmuga eta irteerako muntaiak, bidegurutzeetan... Goierriko Itzulia antolatzeak lan handia eskatzen du, baina merezi du. Aspalditik antolatzen den itzulia da eta egun Bidasoako Itzuliarekin batera Gipuzkoan afizionatu eta 23 urte azpiko txirrindularientzat antolatzen den itzuli bakarra da. Aurten estatu mailako talde nagusiak Urretxura ekartzea lortu dugu, Banesto eta Kelme barne, eta Urretxu eta Zumarragako udalak, Federazioa eta merkatal-etxeak ere gurekin primeran portatu dira. Gure esker ona erakutsi asmoz beraien izenei ahalik eta oihartzun zabale-na eskaini diegu.



Aurten txirrindularitza eskolan aritu diren gazteek etorkizun oparoa dute.

Bukatzeke, Goierriko Itzulia txirrindularitza atalaren lanetako bat besterik ez da...

Hala da. Goierri K.E.ren txirrindularitza sailaren eguneroko lana gazteen txirrindularitza zaletasuna sustatzera zuzendua dago. Horretarako hiru talde ditugu. Construcciones Metálicas Urretxuk babesten duen txirrindularitza eskolan 13 urte azpiko gazteak aritzen dira, Hiercorrek 1. mailako kadeteen taldea babesten du eta Asirautok 2. mailako kadeteen taldea. Gure asmoa, babesle berria lortu eta

etorkizunean jubenetako taldea ateratzzea da. Txirrindularitza Goierri K.E. an jorratzen dugun kirol garestiena da eta batzbeste gazte bakoi-tzari jantzi aproposak, fitxa eta joan-etorriak ordaintzea 80.000 pezeta inguru kostatzen da. Hala ere, azken urte hauetan kirol honekiko zaletasuna asko hazi da eta gazte hauek txirrindularitzan gustura ikusteak lan hau guztia egitea merezi du. Jubenil eta afizionatu mailako taldeak ateratzzea asko gustatuko litzaiguke, txirrindulari gazteekin urte gehiagotan jarraitzeko aukera emango bailiguke.

Jesús Mujika urretxuar txirrindularia zenari omenaldia


Aurten Goierriko itzuliaren etapak Jesus Mujika Errasti jaio zen etxearen aurrean hasi dira. Era honetara omenaldi txiki bat egin nahi izan zaio duela 50 urte Bordele-Paris klasika irabazi zuen eta handik gutxira kotxe istripuan hil zen urretxuar txirrindulari kementsu honi. Bordele-Paris klasikak 586 kilometro zituen (erraz esaten da) eta Jesusk 17 ordu behar izan zituen, 35 kilometro orduko abiaduran, lasterketa amaitzeko. Garai hartako bizikletak eta errepideak nolakoak izango ziren pentsatzen jarritz gero, argi dago Urretxun jaio eta Frantzia bizi izan zen txirrindulariak lortutako garaipenak omenaldia merezi zuela.

Jesus Mujikak 23 urte eta etorkizun oparoa zituen Burdeos-Paris lasterketa irabazi zuenean. Coppi, Kubler eta

Gemianini txirrindulari ospetsuekin lehian aritzeko aukera izan zuen beste eta hauen esanetan Jesusk klasikak irabazteko berezko dohaiak zituen.

Jesus Boulougne Sur Gesse herrian bizi zen eta bertan urtero omenaldia egiten diote afizionatuen lasterketa baten hasieran. Urretxun omenaldiaren ideia urtero Tourra ikustera joaten diren Juan Mari Ormazabal, Jose Mari Bengolea, Santi Azurmendi eta Víctor "Makatza" rena izan da eta Goierriko Itzuliaren antolatzaileek gustura jaso dute ekimena. Horretarako lasterketa hasieran zein amaieran Jesus Mujika urretxuar txirrindulari bikaina gogoratu da.





Iñaki Kerejeta Txistularia, festazalea, Realzalea...

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Txistularia.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Etxe-Azpi elkartean lagunekin egon eta hamabostean behin Realaren partiduetara joatea.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu, zalantzarik gabe.

-Lehengo festak ala oraingoak?

Euskal Herriko festa guztietan izan naiz, lehen ondo pasatzen nuen eta orain ere bai.

-Urretxuko festetatik gehien atsegin duzuna?

Euskal Jaia.

-San Juanak ala Santa Anastasiak?

Bietan parte hartzen dut eta biak atsegin ditut.

-Festak gauez ala egunez?

Gauez, beti izan naiz gau-txoria.

-Txistua ez izatekotan, zein musika tresna joko zenuke?

Ez dut behin ere txistua ez den ezer jotzea pentsatu. Abestea ere atsegin dut eta Goiargin ere aritu nintzen garai batean.

-Gustuko musika mota?

Mota guztiak atsegin ditut, baina Benitorea bereziki.

-Realean atzerritarrak egotearen aldekoa al zara?

Garai batean "Indios fuera" oihukatzen genuen eta orain ere nahiago nuke bertakoak bakarrik arituko balira.

-Atotxa ala Anoeta?

Atotxa. Bertan bizi zen giroak ez du parekorik.

-Krauss ala Ormaetxea?

Ormaetxea.

-Gustuko futbol jokalaria?

Satrustegi, Arkonada... baina batez ere López Ufarte.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Inor ez bereziki.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagunekin.

-Ilehortiak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Ilobari egin diodan eztei-oparia.

-Eta jasotakoa?

Olentzerotan, urtebetetze egunean... jasotzen ditut.

-Data bat?

Ikurriña kalera atera genueneko.

-Neska izen bat?

Asko.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara eta El Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Dokumentalak, batez ere animalienak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Telesailak.

-Liburu bat.

Ez dut irakurtzen, orain oroitzen dudana bat "El Padrino" da.

-Filme bat.

"Bailando con lobos".

-Abesti bat

"Oi ama Euskal Herria".

-Soinu bat.

Txistuarena, noski.

-Usain bat.

Spaghetiena.

-Ukitzeko...


Haragia.

-Janari bat.

Pasta eta arroza.

-Ura ala...

Ardoa.



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68


PUBLIZTATEA

☎ 943 72 57 75

UDAL EUSKALTEGIAK

ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ

TU FUTURO EN EUSKERA



**1999-2000 IKASTURTEKO
EUSKARA IKASTAROAK**

Eskaintza

EUSKALDUNTZE,
ALFABETATZE eta EGA.
Modulo eta ordutegi zabalak.
Bekak.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00.
Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Irailaren 1etik 21era arte.

16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago

Udal Euskaltegian

• • •

Oferta

Todos los niveles de
EUSKALDUNIZACION,
ALFABETIZACION y EGA.
Módulos y horarios flexibles.
Sistema de becas.

Horario de oficina

Mañanas 09:00-13:00.
Tardes: 15:00-19:00

Plazo de matrícula

Del 1 al 21 de septiembre.


A partir de los 16 años.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

Labeaga kalea, 40 A (Belaustegi plaza berria) URRETXU

Tel.: 943 72 33 10

UDAL
EUSKALTEGIAK




Aretxabaleta • Arrasate • Azpeitia • Beasain
Bergara • Deba • Eibar • Elgoibar • Errenteria
Eskoriatza • Hernani • Hondarribia • Irun
Lasarte-Oria • Legazpi • Mutriku • Pasaia • Tolosa
Urnieta • Urretxu • Zarautz • Zumarraga

**Para más información,
acude al Euskaltegi Municipal**

ONDO PASA JAIK!

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA
FLORIDA - GAU-MOTZ - GOIKO KALE - LAKET
NAVARRO - OSABA - THE INTREPID FOX